Haspendar ardiskide P. D-ri "Elgar konpreni dezagun" –

Nor nizen jakin nahi duzula ikusten dut (erranikan gatik aise xilatzen duzula nor iden...). Berehala nahi dautzut kendu biotzeko xixta hori, ezen behargabekoa da, ez nizanaz gain zuk uste duzu Jaun zonbait, baina bakarrik 20 urthoko neska bat.

Egia erraiteko, arras "x" horren kontre zira... Bainan zer nahi duzu, ez da posible denak alde izan diten... Bethi danik, zerbait berriri lotzen denak, izanikan ere gauza hoberenean, izan ditu kontrarioak; kanbiamendu horrentzat berdin. Hola omen da bizia. Branka zaharra nekez plea-tzen, aldiz gaztea gostura moldatzen. Babotxak bere aldia egiten. Horiek oro hola, hartzen dut libertatea zuri gauza baten orroitaraztekoa. Ez othe da, zure gazte denboretako eskuararen (barka otoi hitza!) "kakastatzea"?. Beraz zertako harri, orai ere nahi badugu, behar handitan den gauza bat berritu?.. Segur niz, irakurtu duzula, Urriko "Gure Herrian", Aingeru Irigaray, Jaun mediku Donostiarrak egin ozuen mintzaldia, Baionan Agorrilaren 29an, Akademia egunean. Huna jakintsun horrek derabana, eta horrek, hitz hainitzeko, nola desiratzen duen eskuararen gehiago batetaratzea, ezen bat zenaz laster, Norvegia-koeri gertatu zaiotena, gertatuko baitzaiku. "Hangen Linguista mintzalariak dio "qu'ils ont maintenant 2 langues écrits qui s'appellent Landsmäl et Kiksmäl (bat kanpañakoa mintzarea eta bertzea Dano-Norwégien delakoa" –

~~Gero~~, Orroitarazten dut, Gurutz Goienechea Jaunaren opinionea "Guzien gogoetako gauza liteke, eskualdun guzien artean, odolez bat garen bezalaxe, eskuara bat, bakarra izatea" ezagutuz gauza nekea dela, eta urrasko egin behar duguna, Ch-ren, K-rat, kanbiatzea urats bat, ch-ren, sc-erat egitea lertxe bat, Segitzen du erranez

"Orthographe konduan, zerbait aurreratu dugula'iduri du. Iparraldeko Herria eta Gazte agergarietan asi dire x letraren usatzen, ch ordez... kosta aldeko usantzaren arabera. Gure artean ere, askok idazten dute ll, rr, tt, dobleak, r, l, t pikordunak baino gogotikago, frantses euskal idazlariek bezala, berezi bi batasun aldera nahi dutenek eta Euskaltzaindiak onhartzen duen bezala!"

Horiek oro, azken Herrian, Jean Etchepareh erraiten zuen bezala, Politikan sartu gabe, "séparatiste" izan gabe. Funtsian, oraiko egunean zer da "séparatiste" izaitea? Ez direa "Europe-Unie"ta mintzo garen mendeon, gisa hortako hitzak desmodatuak?.

Bertzalde diozu, Frantzia maite duzula Zuk, erran nahi bazinu bezala, nik ez dutala maite. Seguraz, Europakoa zirela baino lehen, derasakezu Frantsesa zirela, Europa baino Frantzia maitiago duzula! Gisa berean diot, lehenik Eskualdun naizela, lehenik Eskual Herria maite dutala. Ez othe da xuxen, gure ingurian ditugun jendeen maithatzea, gutarik 800 Km etan bizi direnak baino gehiago?. Aré gehiago inguruko heiek guré odolekoak dirdarik?

Ez dea xuxen beraz, orok, indar bat egin dezagun entseatzeko, emeki emeki, gure arteko mintzairearen errekan xuxentzerat?. Zer da ederragorik?

M. L. Arbelbide

P. S. Erranen dautazu! "Zu laborarisa?" Bai, hola niz!. 8 hilabetez eskola egiten badut ere laborari haurreri, bertze 4 hilabetez laborari etxee batean bizi niz... Funtsian, zuri lehen errepostua egina dut 50 xerri plazkatu ondoan...